

## **1998ko ABENDUAREN 21eko BILKURA NAGUSIA**

Lizartzan, mila bederatziehun eta laurogeita hamazortziko abenduaren hogeitabatean, gaueko bederatzia direnean, Alkatea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Ima Zubeldia Luloaga, Juan Manuel Ibarguren Etxeberria, Marian Olano Zabala; Ramon Bengoetxea Altuna, Manuel Barriola Tolosa eta Jose Arzadun Egiluz zinegotziak ez dira agertu bilkurara, nahiz eta jakinean egon, eta ez dute inolako arrazoirik eman; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

### **1.- AURREKO AKTAREN ONARPENA:**

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

### **2.- LIZARTZAKO UDALERRIA BATZEN DUEN EREMUKO 1/10000 ESKALAKO KARTOGRAFIAREN ARGITALPENA EGITEKO ADJUDIKAZIOA**

Mila bederatziehun eta laurogeita hamazortziko abenduaren hamaseian ospatutako bilkuran, IKERMAP ARGITALPEN KARTOGRAFIKOAK enpresaren alde, Kontratazio Mahaiak eginiko esleipen proposamena azterturik, eta adosturik, zera proposatu da:

- 1.- Prozedimendua balioestea eta Lizartzako Udalerria batzen duen eremuko 1/10000 eskalako kartografiaren argitalpena egitea, IKERMAP ARGITALPEN KARTOGRAFIKOAK enpresari adjudikatzea, BI MILIOI BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA BAT MILA BERREHUN ETA HIRUROGEITALAU (2.981.264,-) Bez barne peztatan.
- 2.- Gastua onartzea, gaur egun indarrean dagoen Aurrekontu Orokorraren kargura.

- 3.- Hamar eguneko epean, adjudikatzaileri esleipen kontratuaren ebazpen hau jakineraztea, hogeitamar eguneko epean, administrazio kontratuan, esleipena gauzatzeko. Halaber, gainerako partaideei jakinerazpen bera egingo zaie.
- 4.- Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailari, adjudikazio honen berri ematea, beren adostasuna eman dezan. 15 eguneko epearen barruan, ez badu inolako adierazpenik egiten, Udalaren hautapenarekin bat datorrela joko da.

Lizartzako Udalerria batzen duen eremuko 1/10000 eskalako kartografiaren argitalpena egiteko, Kontratazio Mahaiak, IKERMAP ARGITALPEN KARTOGRAFIKOAK enpresaren alde eginiko adjudikazio proposamena, aho batez onartua izan da.

### **3.- PENSIO PLANEN BAT INDARREAN DAUKATEN TOKI ERAKUNDE ETA KORPORAZIOENTZAKO ERABAKI-PROPOSAMENA**

#### **1.- SARRERA**

Euskadiko Foru eta Toki Administrazioetako langileen Lan Baldintzak 1997-1998 eta 1999ko Ekitaldietarako Arautzeko Erakunde eta Sindikatuen Arteko Erabakian bertako langileentzat Aurreikuspen Sozialeko Plan bati hasiera emateko asmoz, diru-kopuruak zehaztu ziren. Plana egiteko eta 1998 eta 1999 urteetarako diru-kopuruak zehazteko ardura Batzorde Bereziari eman zitzaion. Batzorde horrek planarekin zerikusia zituzten gaiei ekin zien, eta akordio batera iritsi zen, azaroaren 3an izenpetu zena hain zuzen.

Dena dela, erdietsitako akordioa garatzeko egindako ondorengo lanetan desadostasunak eta intepretazio desberdinak antzeman ziren akordioa erdietsi zutuenen artean. Ondorioz, eztabaida eta lan gehiago izan ziren guztien artean planaren ezaugarriak eta 1998 eta 1999 urteetarako zehaztapenak argitzeko asmoz. Halaber, Elkarkidetza-ren gaur egungo bazkide talde desberdinak zein egoeratan geratuko ziren ere argitu nahi izan zen, izan ere, logikoa zenez, erakunde hori izan zen aukeratua planteatutako egitasmoa aurrera eramateko.

Burututako lanen ondorioz, batzordeak beste akordio bat hartu du, aldez aurretik zegoena berriztatzen duena. Akordio horrek aurrekoaren zenbait puntu aldatzeaz gain, alderdi berriak ere sartzen ditu, eta, ondorioz, ordezkatu egiten du.

Orain arte egindakoarekin, Batzordeak uste du bukatuta dagoela Aurreikuspen Plana martxan jartzea ahalbidetuko duen lanik handiena. Horrez gain, onartu beharreko araudiak berehala eztabaidatu behar direla planteatuko du eta, era berean, ezarri beharreko ereduari buruzko eztabaidari jarraitasuna eman nahi dio (epe luzerako).

## **2.- SISTEMARI BURUZKO GAI OROKORRAK**

### **2.1.- Oinarri Juridikoak**

- a) Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 33/87 Legeko 63. Artikuluak aukera ematen du baliabide publikoen pentzura adiministrazio publikoko langileentzat aurreikuspen sozial osagarria egiteko. Pentsioen Plan eta Fondoren bitartez egin ahal izango da aipatutakoa, izan ere, azken xedapenetatik seigarrenak bidea ematen die administrazio publikoei Pentsio Fondoetara ekarpenak egiteko.
- b) Administrazio publikoek zein pentsio-sistematara egin dezaketen aurreikuspen sozialerako diru-ekarpenak.

Arazo hori 8/87 Legeko 4. eta 5. artikuluek eta legea garatzen duen araudiko 15. Artikuluak konpontzen dute, izan ere, administrazio publikoek "lan sistemaren" bitartez bakarrik egin ditzakete ekarpenak. Zentzu horretan, enpresa bakoitzak (kasu honetan administrazio bakoitzak) lan-sistema bakarra baino ezin izan dezake, eta ekarpenak sistema horretan baino ezin du egin; gaur egun ez dago beste legezko aukerarik.

### **2.2.- Sistemaren Oinarrizko Definizioa**

Aurreko guztiaren ondorioz, sistema osagarriaren konfigurazioa lan-sistemaren Pentsio Planarena da.

Hala ere, langileen ekarpenek ez dituztenez aurrerago aipatutako lege manuak bete behar, Pentsio Planari etekina atera nahi dioten langileek ez dute aipatutako Pentsio Planetan ekarpenik egin beharko, baldin eta ekarpen horiek horretarako sortuko den eta Pentsio Planen ezaugarri berberak izango dituen Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Entitate batean egiten badituzte.

Hasiera batean sistema mistotzat har dezakegu, eta araudia ahalik eta epe laburreanean idatziko da.

### **2.3.- Bi Aldeen Eskubideak eta Betebeharrak**

**2.3.1.-** Akordioaren aplikazio eremuak zenbait toki eta eta foru erakunderi ukitzen die, eta erakunde horiek pentsioen sistema osagarrian sartu beharko dira. Dena dela, toki eta foru erakunde horietako langileak nahi izanez gero bakarrik sartuko dira.

**2.3.2.-** Pentsioen Sistema Osagarrian sartzen diren erakundeak Pentsio Sistemaren sustatzaileak eta babesleak izango dira. Halaber, erakundeak arduratuko dira langileen nominetan dagozkien deskontuak egiteaz, bai eta ekarpen eta urtekoak sartzeaz ere.

**2.3.3.-** Sistemari sartzen ez diren langileei erakundeek ez dizkiete ordainduko soldatan beste aurreikuspen sistema batzuk, ez eta beste eraren bateko ordainik ere.

**2.3.4.-** Sistemari sartu nahi duen langileek berriazko eskaria egin behar izango dute dagokien toki eta foru erakundearen.

**2.3.5.-** Atxikipenek, eskabide egin eta hurrengo hilabeteko lehenengo egunetik aurrera izango dute balioa.

**2.3.6.-** 65 urtetik gorakoentzat erakundeek ez dute ekarpenik egingo; salbuespena dira erretirorako beharrezkoa dena bete gabe daudenak.

### **3.- FONDOEN KUDEAKETA**

Fondoek kudeaketa Elkarkidetzak EPSVk egingo d.

### **4.- MARTXAN JARTZEA ETA 1998. ETA 1999. URTEETARAKO EKARPENAK ETA PRESTAZIOAK**

**4.1.-** Sortu diren zailtasunak direla eta, eta denek izan dezaten behar duten informazioa, sistema osagarria 1998ko apirilaren 1ean jarriko da martxan.

**4.2.-** Bai langileek zein erakundeek egin beharreko kotizazioak, eguneratzeak kontuan izan gabe, ondorengoak dira; urtean 14 aportazio egin behar dira.

	<b>Oinarriak</b>	<b>1998</b>	<b>1999</b>
<b>A Taldea</b>	5.450.000	1.947	3.894
<b>B Taldea</b>	4.445.000	1.590	3.180
<b>C Taldea</b>	3.650.000	1.304	2.608
<b>D eta E Taldea</b>	3.050.000	1.090	2.180

Dena dela, eta sistema osagarriari hasiera emateko data berria dela eta, 1998. urteari dagokionez 11 kotizazio egin beharko dira. Kotizazio horiek ondorengoak izango dira:

#### **1998**

<b>A Taldea</b>	2.478
<b>B Taldea</b>	2.020
<b>C Taldea</b>	1.660
<b>D eta E Taldea</b>	1.387

- 4.3.-** Ekarpén horiek erretiroari eta arrisku-prestazioei emango diete estaldura. Plan bakoitzak arrisku-prestazioak estaltzeko ekarpenen %30 erabiliko du 1998an, eta %15 1999.an. Arrisku-presazio horien zenbatekoa erabaki honekin batera doan 1. Eranskinean adieraziko da.
- 4.4.-** Apirilaren 1.a baino lehen partaide egiten diren langile guztiek urtarrilaren 1etik aurrera izango dute arrisku estaldura.
- 4.5.-** Apirilaren 1etik aurrera, arrisku-prestazioen estaldurak atxikipen-eskaria egiten den egunaren biharamunean jarriko dira indarrean.

## **5.- AURRETIKO SISTEMA OSAGARRIRA EKARPENAK EGITEN DITUZTEN LANGILEEN EGOERA ESPEZIFIKOAK**

- 5.1.-** Aurretiko akordioak direla eta, langile batzuek erretiro eta arrisku-prestazio osagarrien estaldurarako erakundeek ekarpenak jasotzeko eskubidea dute (ekarpen horiek berean mantenduko dira). Eskubide horiek izan bitartean, aipatutako langileei ezin izango zaizkie aplikatu erabaki honen ondorio diren ekarpenak.
- 5.2.-** Aurretiko akordioak direla eta, langile batzuek eskubidea dute arrisku-prestazio osagarrien estaldurarako erakundeek ekarpenak jasotzeko (ekarpen horiek berean mantenduko dira). Langile horiei eskubide hori bukatu bitartean baino ezin izango zaizkie aplikatu erabaki honen ondorio diren aurrizkirako ekarpenak.
- 5.3.-** Langile batzuk 1998ko martxoaren 31n oraindik aurretiko sistema osagarrira ekarpenak egiten egon daitezke erakundeek ekarpenetarako eskubiderik izan gabe. Langile horiek ekarpen horiek egiten jarraitu ahal izango dute data horretan egiten dituzten ekarpenen zenbateko berdinekin, edo, bestela, zenbateko horri erabaki honek langilearentzat ezartzen duen ekarpena kenduz geratzen dena.

## **6.- EUDELEK ERABAKI HAU BEREHALA JAKINARAZIKO DIE UDAL GUZTIEI ONARTUA IZAN DADIN**

Guzti horregatik, Udal Batza honi, zera proposatu zaio:

### **PENTSIO PLANEN BAT INDARREAN DAUKATEN TOKI ERAKUNDE ETA KORPORAZIOENTZAKO ERABAKI-PROPOSAMENA**

**IKUSIRIK.-** 1997ko Abenduaren 30eko pentsioen sistema osagarriari buruzko Erakunde eta Sindikatuen arteko Erabakiaren edukia, beharrezkotzat jotzen da LIZARTZAKO UDALA erabakiarekin bat etortzea, eta baita ere behar bezala ezar dadin beharrezkoak diren aurrekontu-gaikuntzak eta beste gaikuntza batzuk egitea.

**KONTUTAN HARTUTA.-** Lizartzako Udalaren atxikipena behin erabaki denean beharrezkoa dela Elkarkidetza/Lizartzako Udala Pentsio Planaren egungo Araudia aldatzea, gaur egun dagoenarekin aldi berean arituko den prestazio-sistema berria ezarri delako, eta horretarako aipatutako Araudian ezarritako gehiengoak lortu behar direla.

Bertaratuen gehiengo absolutuaren bidez ondorengoa erabaki da:

**LEHENENGOA.-** 1997ko abenduaren 30eko pentsioen sistema osagarriari buruzko Erakunde eta Sindikatuen arteko Erabakiarekin bat etortzea 2.etik 5.era bitarteko ataletan (biak barne). Erakunde eta Sindikatuen arteko Erabaki horri buruz adierazitakoa eranskinean emango da.

**BIGARRENA.-** Lizartzako Udalaren ordezkariak Elkarkidetza/Lizartzako Udala Planaren Kontrol Batzordean gaitu, aipatutako Erakunde eta Sindikatuen arteko Erabakiaren edukiak eraginkortasun

handiagoa izan dezan Planaren egungo Araudian egin beharreko aldaketaren edo aldaketen aldeko botoa eman dezaten.

#### **4.- UR HORNIDURANTZAKO DEPOSITU BERRIA EGITEKO LUR EROSKETA**

Udal honek, Lizartzako Udalerrian ur hornidurantzako depositu berria egiteko, Gipuzkoako Ur Kontsortziak egindako proiektuaren arabera, eta hemen, Julia Ruiz de la Cuesta Andrearen jabetzakoa den, ITURRIKO SOROA izeneko terrenoaren okupazioa azaltzen denez, Batzar hau osatzen duten guztien adostasunez, terreno hoi erosteko, aho batez erabakitzen da, era honetan:

1.- Lizartzako Udalerrian ur hornidurantzako depositu berria egiteko, Lizartzako herrian kokatuta dagoen terreno hau erostea onartzen da:

Julia Ruiz de la Cuesta andrearen jabetzakoa den, Iturriko Soroa terrenoa, 695,50 m<sup>2</sup> dituen, Ifarratik: Erregata/Bide Publikoa; Hegoatik: Agirregoiena/Bide Publikoa; Ekialdetik: Gurdi Bidea eta Mendebaldetik: Juan JoseAurkiaren landalurra.

2.- Saltzaileekin ados, terrenoaren prezioa, metro karratuko zazpiehun eta berrogeita hamar peztatan jartzea erabakitzen da.

Honenbestez, salerosketako kontratoaren salneurria, hau da:

a) Lizartzako Udalerrian ur hornidurantzako depositu berria egiteko, erositako lurarengatik, BOSTEHUN ETA HOGEITA BAT MILA SEIEHUN ETA HOGEITA BOST (521.625,-) pezta.

3.- Aurreago onartu den sal-erosketa hitzarmenak behar duen jendaurreko eta norbanakako agiriak emateko, Udaleko Alkate-Lehendakaria den, JOSE ANTONIO MINTEGI ARRATE,ri ahalmenak ematea, erabakitzen da.

#### **5.- KREDITU GEHIGARRIEN BIDEZ EGIN BEHARREKO KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEA ONESTEKO PROPOSAMENA**



Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko otsailaren 26ko 4/1991 Foru Arauaren 34. Artikuluan eta Udal Entitateen Aurrekontu Erregelamendua onesten duen abenduaren 1eko 96/1992 Foru Dekretuaren 40. Artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespenez proposamena irakurri dira.

Eztabaidatu ondoren botutara jarri da eta bertaratuen aho batez, honako hau

## ERABAKI DA

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

### KREDITU GEHIKUNTZAK

Aurrekontu Partida	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egungoak	Aldaketak	Behin-Betikoa
121.01	Funtzionarioaren Soldata Osagarria	1.962.568	147.101	2.109.669
130.01	Administrari Laguntzailea	3.269.921	96.368	3.366.289
130.01	Gizarte Laguntzailea	1.273.697	132.226	1.405.923
130.01	Lanetako Ofizala	3.484.922	173.406	3.658.328
131.01	Etxez Etxeko Laguntzailea	750.540	138.401	888.941
131.01	Liburutegiko Laguntzailearen Ordezko	496.032	83.165	579.197

131.01	Garbitzailearen Ordezkoa	1.168.394	30.070	1.198.464
131.02	Peoia	533.709	92.515	626.224
160.01	Idazkari Kontuhartzailearen Asegur.	910.752	25.583	936.335
160.01	Liburutegiko Laguntzailearen Aseg.	370.799	115.426	486.225
160.01	Lanetako Ofizialaren Asegurua	1.338.164	308.998	1.647.162
160.02	Etxez Etxeko Laguntzailearen Aseg.	243.533	13.006	256.539
160.02	Garbitzailearen Asegurua	900.103	10.222	910.325
160.05	Sendagile-Farmazeutiko Asistentzia	128.100	9.822	137.922
213.01	Land-Roverraren Mantenimendua	50.000	4.720	54.720
221.04	Kalefaziozako Gasoile	350.000	12.753	362.753
222.05	Sare Konmutatuaren Erabilera	650.000	78.025	728.025
420.01	Tolosako Gerontologia Zentroa	460.966	41.955	502.921
421.01	Tolosaldea Garatzen	379.786	37.979	417.765
421.03	Tolosaldeko Mendi Nekazaritza Elk.	282.627	1.006.244	1.288.871
421.07	Tolosaldeko Mankomunitatea	-----	28.969	28.969
430.01	Gizarte Ongizatea	760.000	62.084	822.084
626.01	Informatikako Ekipoak	-----	428.852	428.852
680.01	Terreno Erosketa	1.951.920	487.500	2.439.420
853.01	Akzio Erosketa	-----	100.000	100.000
933.01	Maileguen Amortizazioa	2.931.857	35.857	2.967.714
	<b>GUZTIRA</b>	24.648.390	<b>3.701.247</b>	28.349.637

### FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Gastuen Partidak	Baliabidearen Kontzeptua	Gastuetako Bajak	Baliabide Partziala
120.01	Funtzionarioaren Oinarrizko Soldata	31.308	1.637.282
130.01	Liburutegiko Laguntzailea	340.015	826.269
130.02	Garbitzailea	39.092	2.608.308
131.02	Etxez Etxeko Laguntzailearen Ordezkoa	28.948	21.599
141.01	Pelotalekuzaina	53.924	377.337
160.01	Gizarte Laguntzailearen Asegurua	14.836	416.618
160.02	Administrari Laguntzailearen Asegurua	36.367	998.207

210.01	Bestelako Mantenimenduak	487.500	2.726.828
210.01	Kamio, Kale eta Bideen Mantenimendua	250.000	-----
211.01	Udaletxearen Mantenimendua	100.000	-----
211.01	Frontoiaren Mantenimendua	163.059	86.941
215.01	Bulegoko Makinen Mantenimendua	142.423	207.577
220.01	Bulegorako Materiala	183.233	216.767
221.01	Udaletxeko Argi Indarra	106.849	243.151
221.01	Frontoiako Argi Indarra	150.784	199.216
226.03	Publizitatea eta Propaganda	27.456	72.544
226.04	Asesoritza Juridikoa	269.109	1.230.891
226.04	Arkitektoa	70.271	779.729
227.02	Zaborteaira Zaborrak botatzea	160.553	339.447
231.01	Udalkideen Dietak	255.930	264.070
332.01	Maileguen Interesak	35.857	1.149.611
421.01	Gipuzkoako Ur Kontsortzioa	475.358	878.061
421.02	Tolosaldeko Autobusen Kontzesioa	136.420	243.439
430.01	Kirolak Batzordea	141.955	1.183.045
	<b>KREDITU ERABILGARRIAK GUZTIRA</b>	<b>3.701.247</b>	<b>17.193.787</b>

Bigarren.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

Hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak Batzarra amaitutzat eman du, gaueko hamarrak direnean.